

AURKEZPENA

Azken urteetan hainbat asmakizun berri martxan jarri dira, eta horien garapena teknologia eta zientziaren aurrerapenari esker izan da posible. Asmakizun hauek mundu mailako arazo handiei, hala nola, klima-aldaketa, kutsadura eta osasun arloko erronkei, erantzuna emateko sortu dira. Energia berriztagarriak ustiatzeko sistemak, garraio elektriko eta autonomoa, ozeanoetako plastikoa biltzeko teknologia automatikoak eta hondakinak birziklitzeko metodo berriak dira horien adibide batzuk. Halaber, adimen artifizialak eta datu handien analisisiek sektore askotan erabakiak hobeto hartzea ahalbidetu dute, osasunean diagnostiko eta tratamendu azkarrak garatzea barne. Asmakizun hauek gizarte jasangarriagoa eta orekatua lortzeko bidean jarri gaituzte. **Innovarbo** taldean, beste asmakizun bat proposatzen dugu, Etxeko birziklatzaile unibertsal bat.

ARAZOA

Mundu mailan dugun arazo nagusienetako bat, zalantzarik gabe, munduko ingurumen-kutsadura da. Urte askoan, gizarteak hainbat neurri hartu ditu arazo hau arintzen saiatzeko, horien artean, etxeetan materialak birziklatzeko eta hondakinak behar bezala banatzeko ohiturak bultzatzea nabarmendu da. Hala ere, nahiz eta neurri horiek lagungarriak izan, ez da aldaketa esanguratsurik ikusi, kutsadura fenomeno konplexua baita, eta faktore ugari ditu eragile. Faktore horien artean, karbono isurketak nabarmentzen dira, bai industrietatik datozenak bai garraio-sistemetatik eratorritakoak. Gainera, itsasoetan pilatzen den plastiko kopuru handia ere arazo larria bihurtu da; hondakin horiek gehienetan hondakindegietatik ihes egiten dute eta itsas ekosistemak kutsatzen dituzte.

KONPONBIDEA

Aurreko orrian azaldu dugun arazoa konpontzeko hainbat proiektu gauzatu dira azken urteotan, hondakinen kudeaketa eta birziklapena eraginkorragoa egiteko asmoz. Hondakinen gaikako bereizketa eta berrerabilpena bultzatzeko helburuarekin, hainbat talde eta erakunde lanean ari dira irtenbide berritzaileak sortzen. Innovarbo taldeak, bere aldetik, proiektu ausart eta berritzaile bat proposatu du: Etxeko birziklatzaile unibertsal baten sorrera.

Gailu honek etxean sortzen diren hondakin mota guztiak modu errazean eta azkarrean sailkatu eta birziklatzeko aukera emango luke. Gainera, birziklatzaile unibertsal honek teknologia aurreratua erabiliko luke, hondakinak automatikoki ezagutu eta dagokion birziklatze-prozesura bideratzeko. Modu horretan, erabiltzaileek birziklatzeko prozesua sinplifikatu eta denbora aurrezteko lortuko lukete, aldi berean ingurumen-inpaktua murriztuz.

Proiektu hau ez da soilik ingurumenari onura egiteko diseinatu, baizik eta herritarren kontzientziazioa areagotzeko ere bai.

Azken finean, Innovarbo taldearen proposamenak, teknologiaren eta ingurumenarekiko ardura konbinatuz, etxeko birziklapenean iraultza txiki bat sortzeko asmoa du. Ideia honek etxe bakoitzean birziklapena ohiko jarduera bihurtzea eta etorkizun jasangarriago baterako bidea erraztea du helburu.